

Altza

AuditZ Akularreko parke proiektua

Altza XXI plataformak AuditZ Akular parke bihurtzeko proiektua aurkeztu du. Parkeak paseoa ibiltzeko, kirola egiteko eta bazkaltzeko guneak izango lituzke, besteak beste.

Sara Soria

Alderdi politikoen arteko desadostasunak direla medio, oraingoz behintzat, bertan behera gelditu da AuditZ Akularren 3.000 bat etxebizitza eraikitzeko egitasmoa. Bien bitartean, Altza XXI plataformak AuditZ Akular parke bihurtzeko proiektua aurkeztu du. Proiektuaren arabera, batetik, parkeak paseoa ibiltzeko bide ugari eta baratza batzuk eta lorategi botanikoa izango lituzke. Bestetik, Molinao errekatxoa baliatuz,

aintzira moduko bat egingo litzateke parke erdian. Bazkariak edo afariak prestatzeko hiru gune ere —bankuekin, mahaiekin eta parrilekin— aurreikusi ditu egitasmoak.

Baserriak

Plataformako kideek jakinarazi dutenez, parkea egin arren, egungo baserriek eta abeltzaintza eta nekazaritza jarduerak bere horretan jarraituko lukete. Bestalde, egitasmoa aurrera aterako balitz, AuditZ Akular kirolzaleen bilgune ere bihurtuko litzateke. Izan ere, rokodromoa, tenis pistak eta herri kiroletarako gunea egin nahi dira. Datozen egunotan, plataformako kideek proiektuaren berri emango diete auzoko elkarteei eta ondoren, alderdi politikoei parkearen aldeko konpromisoak hartzeko prest ote dauden galdetuko diete.




berdintasuna
enplegua

maiatzak

Gerrarik
ez

MANIFESTAZIOA
Bulebarrean
12.00etan



CC.OO.

euskadiko langile komisioak